LEHIAKETAK-CONCURSOS / SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

# Gartziategi sagardotegiak irabazi du aurtengo Gipuzkoako XIV Sagardo lehiaketa.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 08/06/2015 • 8:17 • Editar  Sin comentarios




**Astigarragako Gartziategi sagardotegiak irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen XIV. Sagardo Lehiaketa**. Donostian ospatu den finalerako sei sagardotegi zeuden sailkatuta, eta hau izan da epaimahaiaren erabakia:

- **Gartziategi** sagardotegia: 74,5 puntu
- **Altzueta** sagardotegia: 73 puntu
- **Gaztañaga** sagardotegia: 71 puntu

Beste hiru finalistek, **Aburuza**, **Begiristain** eta **Olagi** sagardotegiek, diploma bana jaso dute.

Aurtengo edizioko aldaketa nagusia epaimahaia sagardo dastatzaile adituek egin dutela izan da, eta ez, orain arte bezala, hainbat esparrutako ordezkariek. Epaimahaiko kide guztiak Fraisoroko Dastagunean ikasi eta diplomadun dastatzaileak dira, bertako dastatze paneleko partaideak:

- Juan Zuriarrain: Kimikoa. Enologia aholkularitzan teknikoa.
- Fernando Vadillo: Enologoa. Enologia aholkularitzan teknikoa.
- Agurtzane Andueza: Kimikoa. Fraisoro Ingurumen eta Nekazaritza Laborategikoa.
- Guillermo Castaños: Biokimikoa eta enologoa. Elikagaien higienean irakaslea.
- Xabier Kamio: enologoa. Enologia aholkularitza bateko arduraduna.
- Irati Amondarain: enologoa.

35 sagardogile aurkeztu dira lehiaketara, aurten iaz baino bost gehiago, Gipuzkoako 17 herritakoak.

Koldo Lizarralde Nekazaritza eta Landa Garapeneko foru zuzendariak eta Iker Ruiz de Egino Turismoko zuzendariak eman dizkiete **sariak** irabazleei.

- Lehen saria: 3.000 euro, garaikurra eta txapela.
- Bigarren saria: 1.500 euro eta garaikurra.
- Hirugarren saria: 1.000 euro eta garaikurra.

**Tags:** Altzueta, astigarraga, concurso, Gartziategi, Gaztañaga, Gipuzkoako XIV Sagardo lehiaketa, lehiaketa, sagardoa, Sidra

*Anterior post*
Las sidrerías Aburuza, Altzueta, Begiristain, Gartziategi, Gaztañaga y Olagi en la final del XIV. Concurso de Sidra de la Diputación de Gipuzkoa.Aburuza, Altzueta, Begiristain, Gartziategi, Gaztañaga eta Olagi sagardotegiak Gipuzkoako Aldundiaren XIV. Sagardo Lehiaketaren finalean.

## Tu comentario / Zure komentarioa

Registrado como Sagardoaren Lurraldea. Desconectar »

## Sagardoaren Lurraldea

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
**info@sagardoarenlurraldea.com**
**www.sagardoarenlurraldea.com**

**RSS Feed**
**Twitter**
**Facebook**

## Buscar / Bilatu

## Categorías

**Agenda-Agenda**
**Azokak-Ferias**
**Ekitaldiak-Eventos**
**Errezetak-Recetas**
**Esperientziak-Experiencias**
**Formazioa-Formación**
**Gastronomia-Gastronomía**
**Historia-Historia**
**Kultura-Cultura**
**Lehiaketak-Concursos**
**Museos-Museoak**
**Prentsa-Prensa**
**Sagarra-Manzana**
**Sagastia-Manzanal**
**Sidra-Sagardoa**
**Sidrerías-Sagardotegiak**
**Sin categoría**
**Turismoa-Turismo**

## Post Recientes



Gartziategi sagardotegiak irabazi du aurtengo Gipuzkoako XIV Sagardo lehiaketa.



Aburuza, Altzueta, Begiristain, Gartziategi, Gaztañaga eta Olagi sagardotegiak Gipuzkoako Aldundiaren XIV. Sagardo Lehiaketaren finalean.



"SAGARDOA ETA ITSASOA": Balearen

Enviar


arrantzaren abenturak ezagutu!


XXII. Pasai Antxoko Sagardo Eguna, ekainaren 6an.


Sagarrondoak udaran zaintzeko ikastaroa.

## Comentarios recientes

**Sagardoaren Lurraldea** en **Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.**

**Jarras también en las antiguas sagardotegis | pitxTapitch** en **Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.**

**Sagardoaren Lurraldea** en **"Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.**

Marisa en **"Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.**

m. petrus en **"Sagastiak loretan eta ardiak larretan" argazki lehiaketa Facebook-en.**